



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

## **.2020ko ABENDUAREN 11an EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Olaberrian, 2020ko abenduaren 11an, arratsaldeko 13:00 izanik Udaletxeko Pleno Aretoan bildu dira alkatea den Jokin Garmendia Asurabarrena, Nerea Castaño Irazola (O.E.O) eta Pedro José Jauregui García (EH-BILDU) zinegotziak. Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O) y Elixabet Canales Segurola (O.E.O), modu birtualean etxetik bertaratu dira, bideo-deiaren bidez.

Maidier Agirre Mugikak (O.E.O), Aitor Urkiola Ugartemendiak (EH-BILDU) ezin etorria adierazi dute

.Bertan dago eta fede ematen du Iñaki Alonso Antolin Idazkari Kontu-hartzaileak. Era berean, modu birtualean bertaratzten diren bi zinegotzien nortasunaren eta egoeraren fede eman du.

### **ALKATETZAKO GAIK**

**Alkatetza ebazpenen berri ematea.**

Alkate jaunak dio joan zen batzorde informatzaileetan aurreko Osoko Bilkuratik aurrera emandako Alkatetza-Ebazpenen inguruko azalpena eman zela, 196/2020tik 220/2020 bitartera.

Udal-kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

**OGASUNA ETA UDAL ZERBITZU  
TEKNIKOAK**

## **ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO CELEBRADO EL 11 DE DICIEMBRE DE 2020.**

En Olaberria, a 11 de diciembre de 2020, siendo las 13:00 horas se han reunido en el Salón de Plenos del Ayuntamiento el alcalde, Jokin Garmendia Asurabarrena y los concejales, Nerea Castaño Irazola (O.E.O) y Pedro José Jauregui García (EH-BILDU). Irene Irastorza Asurabarrena (O.E.O) y Elixabet Canales Segurola (O.E.O) asisten de forma virtual desde su domicilio, a través de videollamada.

Excusan su asistencia Maidier Agirre Mugika (O.E.O) y Aitor Urkiola Ugartemendia (EH-BILDU).

Asiste y da fe del acto el Secretario-Interventor Iñaki Alonso Antolin, quien también da fé de la identidad y situación de las dos corporativas que asisten de forma virtual.

### **TEMAS DE ALCALDÍA**

**Dar cuenta de los decretos de alcaldía.**

El Sr. Alcalde informa de que se dio cuenta en la pasada comisión informativa de los Decretos de Alcaldía adoptados a partir del último Pleno Ordinario, es decir, del 196/2020 al 220/2020.

Los corporativos quedan al corriente.

**HACIENDA Y SERVICIOS TÉCNICOS  
MUNICIPALES**



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

### 3.000 eurotik gorako fakturen onarpena.

Hauek dira Osoko Bilkurara aurkeztu diren fakturak, bere onarpenerako:

### Aprobación de las facturas superiores a 3.000 euros.

Estas son las facturas que se presentan al Pleno para su aprobación:

ZKIA	IZENA	AZALPENA	KOPURUA
1	GIPUZKOAKO FORU ALDUN.	KUDEAKETA KOSTUA	8.021,00 €
2	SOROA ARQUITECTOS S.L.	C. DE LA CRUZ 1-3	3.598,42 €
3	E. IGARTUA E. y P.	C. DE LA CRUZ 1-3	3.598,41 €
4	LIMPIEZAS ABANDO	GARBIKETA IRAILA	5.541,72 €
5	GUREAK BERDEA	LORAZAINTZA	3.936,63 €
6	SASOI	GAÑERA-6 URBANIZAZIOA	48.381,85 €

Sei fakturako zerrenda hau onartzeko proposamena bozkatu da, eta gehiengo osoz onartu da, O.E.O. udal taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin eta EH-Bildu taldeko zinegotziaren abstentzioarekin.

Se procede a la votación de la propuesta de aprobación de esta relación de seis facturas, resultando aprobadas por mayoría absoluta, con el voto favorable de los cuatro concejales del grupo municipal O.E.O. y la abstención del concejal del grupo EH-BILDU.

### Diruzaintzaren egoera: informazioa.

Udal-kideei, 2020ko abenduaren 3ri dagokion diruzaintzaren egoera aurkeztu zitzaizen joan zen batzorde informatzailean.

Udalak, kutxan, banketxe ezberdinetako kontuetan eta epe laburrera eginiko inbertsioen artean, guztira Udal eraikinen garbiketa kontratuaren esleipena. **3.171.100,27 euro** ditu.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean gelditzen dira.

### Situación de tesorería: información.

Se presenta a los corporativos en la pasada comisión informativa la situación de tesorería a fecha 3 de diciembre de 2020.

El Ayuntamiento dispone entre la caja, las cuentas en las distintas entidades y las inversiones a corto plazo, un total de **3.171.100,27 euros**.

Los corporativos quedan al corriente.

### 3.- 2021rako Ordenantza Fiskaleen behin

### 3.- Aprobación definitiva Ordenanzas Fis-



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

## betiko onarpena

Alkateak hartu du hitza eta Osoko Bilkurari jakinarazi dio 2021. urterako ordenantza fiskalen tarifak aldatzeko espedientea jendaurrean egon den aldian M.B.A.k sinatutako alegazio bat aurkeztu dela.

Era berean, udal honek 25 urtetik gorako antzintasuna duten ibilgailuei ematen dien hobaria 14/1989 Foru Arauaren 4.5 c) hizkian jasotako araudi berriari egokitu beharra dagoela jakinarazi da.

Informazio Batzordeak honako irizpen hau eman du:

## cales para 2.021.

Toma la palabra el Sr. Alcalde para dar cuenta al Pleno de que durante el periodo de exposición pública del expediente de modificación de tarifas de las Ordenanzas fiscales para el año 2.021 se ha presentado una alegación suscrita por M.B.A.

Asimismo se da cuenta de la necesidad de adecuar la bonificación que concede este Ayuntamiento a los vehículos de una antigüedad superior a 25 años, a la nueva regulación que hace la Norma Foral 14/1989, en su art. 4.5 letra c).

En la Comisión informativa se ha adoptado el siguiente dictamen:

2021erako Ordenantza Fiskalak aldatzeko espedientea jendaurrean jarri den aldian, Olaberriko bazilaguna den M.B.A.k alegazio bat aurkeztu du, eta honela dio hitzez hitz:

***“Onartu nahi den ordenantza fiskal espedienteak ez du gaur egungo famili aniztasuna isladatzen. Ordenantza fiskaletan famili ugariak hobaria duten ataleetan guraso bakarrek familiak ere aintzat hartzea (Hiri izaerako ondasun higiezinaren gaineko zerga, ludoteka, udalekuak...)”***

Hasieran onartu den tasaren aldaketa bakarra zaborrak bildu eta tratatzearena da. Beraz, alegazioek tasa zehatz horri buruzkoak izan behar dute, eta ez aldatu ez diren beste zerga edo tasa batzuei buruzkoak.

Alegazioak aurkezteko, jendaurrean jarri da zaborren tasaren aldaketa, eta ez aldatu ez diren gainerako zerga eta tasak. Hala ere, hurrengo ekitaldietan, udal honek konpromisoa hartzen du alegazio-egileak aipatzen duen kolektiboaren egoera aztertzeko.

Bestalde, proposatzen da doikuntza hau egitea trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren:

Aldatu egin da Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Araua. Zehazki, 4.5 artikuluko c) letrak ezartzen du udalek ibilgailu historikoen edo gutxienez **30 urteko** antzintasuna duten ibilgailuen % 100erainoko hobaria aplikatzeko aukera dutela, fabrikazio-datatik edo lehen matrikulaziotik zenbatzen hasita. Foru Arauaren aldaketa honetara arte, hoberi hori aplikatzeko behar ziren urteak 25 ziren. Arau-aldaketa horretara egokitu beharra



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

dagoenez, beharrezkotzat jotzen da ordenantzan doikuntza hori egitea. Hobariaren testua aldatu ondoren, honako hau izango litzateke:

**1.- %100eko hobaria ezartzen da ibilgailu historikoetarako edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna duten ibilgailuetarako. Fabrikazio eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.**

Hori guztia ikusirik, honako erabaki hauek hartzea proposatzen zaio osoko bilkurari:

**Lehenengoa.-** Aipatutako Informazio Batzordearen irizpena onartzea, M.B.A.k aurkeztutako alegazioa ezetsiz. Hala ere, 2022rako Ordenantza Fiskalak aldatzeko proposamena aztertuko da.

**Bigarrena.-** Ordenantzetako tasak, kuotak eta tarifak behin betiko onartzea, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Hona hemen ordenantzen testu aldatuak:

## **.1.- ZERGAK**

### **TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA**

#### **Hobariak**

Ibilgailu historikoentzako edo gutxienez 25 urteko antzinatasuna dutenentzako hobaria aldatu da, eta 30 urtekoa izango da. Hona hemen hobariaren edukia, behin aldatuta:

**1.- %100eko hobaria ezartzen da ibilgailu historikoetarako edo fabrikazio egunetik kontatuta gutxienez hogeita hamar urteko antzinatasuna duten ibilgailuetarako. Fabrikazio**

En vista de todo ello se propone al Pleno la adopción de los acuerdos siguientes:

**Primero.-** Aprobar el dictamen de la Comisión Informativa mencionado, desestimando la alegación presentada por M.B.A. No obstante, se estudiará su propuesta para la modificación de Ordenanzas Fiscales que se realice para el ejercicio 2.022.

**Segundo.-** Aprobar de forma definitiva la fijación y modificación de tipos, cuotas, tarifas de las Ordenanzas, con efectos del 1º de enero de 2021, cuyos textos modificados son del siguiente tenor:

## **1.- IMPUESTOS**

### **IMPUESTO DE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA**

#### **Bonificaciones**

Se modifica la bonificación para vehículos históricos o que tengan una antigüedad mínima de 25 años, pasando a ser de 30 años. El contenido de la bonificación una vez modificada es el siguiente:

**1.- Se establece una bonificación del 100 por 100 para los vehículos históricos o aquellos que tengan una antigüedad mínima de treinta años, contados a partir de**



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

*eguna ez bada ezagutzen, lehen matrikulazio eguna hartuko da halakotzat edo, bestela, ibilgailu mota edo aldera fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.*

*la fecha de su fabricación o, si ésta no se conociera, tomando como tal la de su primera matriculación o, en su defecto, la fecha en que el correspondiente tipo o variante se dejó de fabricar.*

## **2.- TASAK ZERBITZUEN PRESTAKUNTZA-GATIK**

## **2.- TASAS POR LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS**

### **ZABORRA BILTZEKO ZERBITZUA ESKAINTZEAGATIKO TASA**

### **TASA POR LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE RECOGIDA DE BASURA**

Tarifa berri hauek ezarri dira:

Se establecen estas nuevas tarifas:

Etxebizitzak: 112 €urtean (28 €hiru hilean)

Viviendas: 112 € anual (28€ al trimestre)

Elkartek, tabernak eta jatetxeak: 312 €urtean (78 €hiru hilean).

Sociedades recreativas, bares y restaurantes: 312 € anual (78€ al trimestre).

Berariazko edukiontzirik ez duten merkataritza- eta industria-establezimenduak: 312 €urtean (78 €hiru hilean).

Establecimientos Comerciales e industriales sin contenedores específicos para ellos : 312 € anual (78€ al trimestre).

Hondar edo "errefusa" frakzioko edukiontzirik ez duten baina haiantzako beste edukiontzi-mota espezifiko bat duten Industrialdeetan kokatutako merkataritza- eta industria-establezimenduak: 760 €urtean (190 €hiruhilekoan).

Establecimientos Comerciales e industriales ubicados en polígonos industriales sin contenedores de fracción resto o "rechazo" pero que si tienen otro tipo de contenedores específicos para ellos : 760 € anual (190€ al trimestre).

Industrialdeetan kokatutako enpresak, hondar edo "errefusa" frakzioko edukiontzi espezifikoak dituztenak:

Empresas ubicadas en polígonos industriales con contenedores específicos de fracción resto o "rechazo":

Hondar edo "errefusa" frakzioko 1.000 litroko edukiontzi bakoitzeko: 1.000 €urtean (250 €hiru hilean).

Por cada contenedor de 1.000 litros de fracción resto o "rechazo": 1.000€ anual (250€ al trimestre).



OLABERRIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE OLABERRIA

Hondar edo "errefusa" frakzioko 360 litroko edukiontzi bakoitzeko: 760 €urtean (190 €hiru hilean).

Tarifa aplikatzeko irizpideak:

- Ordaintzeko obligazioa izango dute etxebizitzan eta industri zein merkatal establezimenduen maizter eta okupanteak, hauek erabiliak edo okupatuak egon edo ez.
- Olaberriko Udalak enpresa bakoitzak dituen edukiontzien kopuru zehatza zein den jakiteko, Sasieta Mankomunitateari hiru hilean behin ziurtagiri bat eskatuko dio, eta tasa horren sortzapen-data urte bakoitzeko urtarrilaren 1a, apirila, uztaila eta urria izango da.

**Hirugarrena.-** Aldatutako testuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, 2021eko urtarrilaren 1ean indarrean sartzeko. Era berean, erabaki hau jakinaraziko zaio alegazioa aurkeztu duen pertsonari.

Proposamena bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

**Eta aztertzeko beste gairik egon gabe, Alkate jaunak bukatutzat ematen du bilkura 13:15ak direnean, eta nik, Udalbatzako Idazkariak, adierazitako guztiaren Akta egiten du.**

**ALKATEA / EL ALCALDE**

Por cada contenedor de 360 litros de fracción resto o "rechazo": 760€ anual (190€ al trimestre).

Criterios de aplicación de la tarifa:

- La obligación de contribuir será obligatoria para todos los arrendatarios y ocupantes de las viviendas y establecimientos comerciales e industriales, sin que obste en contrario el hecho de su no utilización.
- Para conocer el número exacto de contenedores con el que cuenta cada empresa el Ayuntamiento de Olaberria solicitará a la Mancomunidad Sasieta una certificación trimestral en este sentido, siendo las fechas de devengo de esta tasa el 1 de enero, abril, julio y octubre de cada año.

**Tercero.-** Publicar los textos modificados en el Boletín oficial de Gipuzkoa, para que entren en vigor el 1 de enero de 2021.

Asimismo notificar a la persona alegante el presente acuerdo.

Sometida a votación esta propuesta es aprobada por unanimidad.

**Y sin más asuntos por tratar, el Sr. Alcalde da por terminada la sesión cuando son las 13 horas y 15 minutos, y yo, Secretario de la Corporación, expido el Acta de todo lo manifestado.**

**IDAZKARIA / EL SECRETARIO**